

## HUMANITATEAREN UNE GORENAK

# Maisu-maistrak



ARITZ GALARRAGA

**A**ntoine Compagnon aipatu, berriki eman duen azken lezioa Collège de France prestigiotsuan, eta, jubilatutako den hone-tan, aitortu beharra dut inspiragarri izan zaidala, ezagutza iturri, sarri asko mirail, egiazko maisu. Literaturaz dakidan gutxiaren parte handi bat hari zor diodala, alegia, han-hemenka harrapatu dizkiodan mintzaldiei, artikuluei, liburuei. Pentsa, apalategiak txukundu nituen batean *El demonio de la literatura* saiakeraren hiru ale zenbatzera iritsi nintzen. Eta eduki zehatz batzuez harago: hartu diot egonarrria, munduan ibiltzeko modu bat, laburtuz, Perecen hura, bizitza nola erabili.

Beste maisu batek, Jordi Llovetek, badu liburu bat, hain zuzen *Els mestres* izenekoa, zeinean egiten dien omenaldia pertsona eta intelektual gisa osatzeko erabakigarri izan zaizkion bost maisuri: Miquel Batllori, José Manuel Blecua, Martí de Riquer, José María Valverde eta Antoni Comas. Bostak ere aski diferente, partekatzen dituzte hainbat ezaugarri: batere botere goserik gabeak, fede izugarria zioten hitz idatziari, eta batez ere lana, lana eta lana egiteko gaitasuna –ni sekula inoren maisu izango ez naitzenaren proba definitiboa–. Eta, inportanteena, ematen duenez jende diskretua zen, umila, jende ona. Halako maisurik ez dago jada, dio Llovetek. Esango nuke ez dagoela Llovet bezalakorik ere –nik dagoeneko ez nituen ezagutu Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, nahiz paraleloki Llovetek klaseak ematen zituen oraindik Bartzelonako Unibertsitatean–.

Eta hala ere gogoratzen ditut irakasle batzuk –nola ahaztu, adibidez, 3 bat jarri zidan hura–, gogoratzen dut denborarekin maisu-maistra bilakatu direnak; eta irakasle izan gabe, are batzuk sekula aurrez aurre izan gabe ere, paper hori, hitzaren zentzu zabalenean, bete dutenak. Ez dut uste lortu dutenik nitaz pertsona bertutetsu eta ilustratu bat egitea. Baina gauzak erakutsi dizkiote gauza horiek oraindik ez zekizkienari. Eta esango nuke halako zerbait dela irakastea. ●

## EZ HANKA EZ BURU

**ADUR LARREA**  
www.adurlarrea.com



## “ERREGIMENA HAZI EGITEN DA ERRESISTENTZIA EZAREN AURREAN”

### PABLO HASÉL, RAP ABESLARI KATALANA

Hasél espetxeratzeko agindu dute, Espainiako monarkia iraintzea leporatuta. Hogei urte ere eman ditzake kartzelan. “Ez da nire aurkako eraso soilik, adierazpen askatasunaren aurkako bizik. Bat zapaltzen dutenean, besteak izutzeko egiten dute. Terrorismo horrekin euren krimenak eta esplotazio eta miseria politikak salatzea eragotzi nahi dute. Elkartasuna falta izan da nire espetxeratzea saihesteko, beste askorena bezala. Erregimena hazi egiten da erresistentzia ezaren aurrean, eta gero eta eskubide eta askatasun gehiago kentzen dizkigu; autodefentsa antolatze beharra dugu”. 2021/01/29

